

LEZOKO UDALA

Lezoko Udaleko Euskararen Mahai Sektorialaren antolaketa eta funtzionamendu Araudia.

Udalbatzak, 2011ko maiatzaren 18an egintza osoko bilkuran, hasiera batez onartu du Lezoko Udaleko euskararen mahai sektorialaren antolaketa eta funtzionamendu araudia.

Sistema demokratikoa indartzeko oso garrantzitsua da herritarrek herrigintzan parte-hartzea eta inplikazioa, hau da, herritarrek, alderdi politiko eta erakundeetako arduradunekin batera, herriarekin lotutako gaietan zer esana izan behar dute.

Horretan laguntzeko beharrezkoa da parte hartzeko prozesuak zabaltzea, hau da, gobernuan edo alderdi politiko batean parte hartu beharrik izan gabe, herritarrek aukera izatea modu independentean euren udaletako erabakietan parte hartzeko edo eragiteko.

Lezoko Udalak, horretaz jabeturik, herritarren parte-hartzea sustatzeko politikak bultzatzaren aldeko erabakia hartu du. Zergatik? Zertarako?

— Parte-hartzea herritarren eskubide bat delako, administrazio guztiek irekitasunez bermatu eta sustatu behar dutena. Giza Eskubideen Adierazpen unibertsalak aipatzen du pertsonen eskubidea dutela gai publikoei buruzko erabakietan zuzenean nahiz zeharka parte-hartzeko (21. artikulua).

— Sistema demokratikoaren kalitatea hobetzeko. Martxan jarriko diren politikak arrakastatsuak izan daitezen aukera handiagoa izango dugu herritarrekin batera definitu baditugu. Gizartearen ezagutza eta eskaera kontuan hartuta, erabakitako neurriak eraginkorragoak izango dira.

— Herritarrek herriaren parte edo kide direla sentitzeko, gizarte-komunitate edo komunitate politikoaren kide izateko eta sentitzeko behar-beharrezkoa da errealitate kolektibo horiekin konektatzen gaituzten kanalak jarri eta elikatzea.

Parte-hartzea administrazio-egitura osoari eragiten dion zeharkako ardatza da, beste zenbaitekin batera: Ingurumena, euskararen normalizazioa, emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta kultura arteko aniztasuna.

Parte hartzeko baldintzak ez dira berez ematen, sortu eta sustatu egin behar dira: Informazioa eman behar da, eztabaida sustatu, iritzia jaso, erabakiak hartu eta erabakiak jakinarazi behar zaizkie berriz herritarrei.

Azken urte hauetan Lezoko Udalak herritarren parte-hartzeko eskubidean sakontzeko aukera estrategikoa egin du. Martxan jarri dituen prozesuak ugariak izan dira: Hirigintza-plana definitzea herritarren parte-hartzearekin, udaleko parte-hartzeko batzordea sortzea, hirigintza-proiektuen inguruko prozesuak, gazteen egoeraren diagnostikoa, batzorde sektorialak (kultura, jaiak, kirola), Lezo Berriri Euskaldun prozesua, herritarren sarea, berdintasun-plana, portuaren inguruko eztabaida Horietan guztietan sektore edo gai horrekin lotutako hainbat herritar, eragile eta elkarte hartu dute parte.

Ondorengo arauak Lezon demokrazia partehartzailean sakontzen jarraitzeko helburua du euskararen normalizazioaren inguruan.

AYUNTAMIENTO DE LEZO

Reglamento de organización y funcionamiento de la Mesa Sectorial de Euskera del Ayuntamiento de Lezo.

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 18 de mayo de 2011 ha aprobado inicialmente la Normativa para el reglamento de organización y funcionamiento de la mesa sectorial de euskera del Ayuntamiento de Lezo.

Un sistema democrático fuerte es sinónimo de participación e implicación de la ciudadanía en la política, es decir, los ciudadanos, junto con los representantes de los partidos políticos y de las instituciones, deben opinar acerca de cualquier tema que les afecte.

La participación ciudadana tiene que estar al alcance de todos los ciudadanos mediante procesos de participación. De ese modo, los ciudadanos, sin la necesidad de formar parte del gobierno o de un partido político determinado, tienen la oportunidad de participar o de incidir de forma independiente en los acuerdos adoptados por sus ayuntamientos.

El Ayuntamiento de Lezo es consciente de la importancia que tiene la participación ciudadana, y en ese sentido, ha decidido impulsar políticas de participación. ¿Por qué? ¿Con qué finalidad?

— Porque la participación es un derecho que todo ciudadano tiene y que todas las administraciones deben garantizar y fomentar. Según la Declaración Universal de Derechos Humanos, toda persona tiene derecho a participar en el gobierno de su país, directamente o por medio de representantes libremente escogidos (artículo 21).

— Para mejorar la calidad del sistema democrático. El éxito de las políticas que se pongan en marcha será mayor si previamente han sido definidas junto con los ciudadanos. Asimismo, las medidas establecidas serán más eficaces si están basadas en el conocimiento de la sociedad y de sus exigencias.

— Para que los ciudadanos se sientan parte del municipio. Para sentirnos parte o miembros de la comunidad social o política, es imprescindible establecer y alimentar los canales necesarios que nos conecten con esas realidades colectivas.

La participación, aunque de forma indirecta, afecta a la totalidad de la estructura administrativa, y entre otros, al medio ambiente, a la normalización del euskera, a la igualdad entre hombres y mujeres y a la diversidad cultural.

Las condiciones de participación no surgen espontáneamente, hay que crearlas y fomentarlas. Así pues, hay que ofrecer información, promover el debate, recabar opiniones, adoptar acuerdos y darlos a conocer a la ciudadanía.

Durante los últimos años, el Ayuntamiento de Lezo ha apostado por una vía estratégica para profundizar en el derecho a la participación ciudadana y ha puesto en marcha diversos procesos, entre los que cabe destacar la definición junto con la participación de la ciudadanía del plan urbanístico, la creación de la comisión municipal de participación, los procesos sobre proyectos urbanísticos, el diagnóstico sobre la situación de la juventud, las comisiones sectoriales (cultura, festejos, deporte), el proceso «Lezo Berriri Euskaldun», la red de ciudadanos, el plan de igualdad y el debate sobre el puerto. Todos los procesos mencionados han contado con la participación de ciudadanos, agentes y asociaciones relacionadas con esos sectores o temas.

El objeto de la siguiente normativa es seguir profundizando en la democracia participativa en lo referente a la normalización del euskera.

ADIERAZPEN OROKORRA

Lezoko euskararen egoera normalizatzeko ahaleginetan herritarren, herriko erakundeen eta Lezoko Udalaren arteko elkarlanik gabe, ez dago bertan izandako bilakaerarik ulertzerik.

Euskararen egoera unean une egokitzen joan den neurrian, Udala eta herri ekimenaren arteko lankidetzak aldaketa horiei erantzuteko ahalegina egin du. Horri esker, gaur egun, izaera desberdineko pertsona eta erakundeekin osatutako jardunbide eta egitasmo ugari ditugu.

Konplexutasun horren erakusgarri da, halaber, Lezoko Udalak egiten duen ahalegin ekonomiko eta logistikoa herritarrek eta herriko erakundeek eskura izan ditzaten behar dituzten baliabideak. Ikuspuntu horretatik, Udalarentzat euskararen aldeko jardueren antolaketak planifikazio gero eta handiago eskatzen du.

Euskararen inguruko ekimenen antolaketak berarekin dakartzan konplexutasuna eta aberastasuna elkarrekin lotzeak, ordea, lanerako prozedura sendo eta argiak eskatzen ditu; bai behar bezala antolatzeko, bai herri ekimenaren parte hartzea eratzeko.

Euskararen aldeko ekimenen antolaketan parte hartzen duten guztien interesak, ahalmenak eta ideiak bideratzen lagunduko duen prozedura eta metodologi argia falta ditugu, hots, Mahai Sektorialaren antolaketak eta funtzionamendu araudia. Ondoren datorren araudiak hutsune hori betetzea du helburu.

1. Xedea.

Alor ugari landu nahi dugu herrian diharduten gizarte eragileekin batera, halere hemen mahaiaren helburu nagusia: Euskararen egoera normalizatzeko eragile izaera izango duen Euskararen Mahai Sektoriala.

Euskararen mahai sektorialak duen konpromisoa euskararen erabilera soziala sustatzeko kontuan hartuta, ekintza hauek euskararen normalizazioa lortzera bideratuak izango dira. Horretarako, antolatutako ekitaldi denetan arreta berezia eskainiko dio euskararen Udal Ordenantzan jasotakoari eta gainerako araudia aintzakotzat hartzen da, besteak beste, alor publikoan zaindu daitezen ondoko hauek:

— Propaganda, oharrak eta publizitatea.

— Jarduera bakoitzean, megafonia bidez emandako mezuek, hala nola musika eta abestiek, baldintza hori bera bete beharko dute.

Aldi berean, Lezoko Udalak kudeatzen dituen aurrekontu, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak jarraitu beharreko prozedura orokorra arautu nahi duten oinarriak eratzea eta herritarren ekimenak bultzatzea izan daiteke helburu.

Kasu guztietan ekintzen izaerak parte hartzea eta sexuen arteko berdintasuna bermatuko du. Beraz, hau errespetatzen ez duen gizatalde edo honen kontra bideratzen den ekintzarik ez da onartuko.

EUSKARAREN MAHAI SEKTORIALAREN
FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA*1. Euskararen mahai sektorialaren hizkuntza.*

— Euskararen mahai sektorialaren funtzionamendu hizkuntza euskara izango da.

DECLARACIÓN GENERAL

En Lezo la evolución del euskera está estrechamente unida a la cooperación de ciudadanos, asociaciones locales y Ayuntamiento Lezo en su esfuerzo para impulsar la normalización del euskera.

La situación del euskera ha ido evolucionando, y es ese sentido, el Ayuntamiento y la iniciativa popular han realizado un esfuerzo conjunto para adaptarse a los cambios producidos. Gracias a ello y a las aportaciones realizadas por personas y asociaciones de naturalezas diversas, hoy en día, contamos con numerosas actividades e iniciativas.

Prueba de esa complejidad es, asimismo, el esfuerzo económico y logístico realizado por el Ayuntamiento de Lezo, con el fin de que los ciudadanos y las asociaciones locales dispongan de los recursos necesarios. Para el Ayuntamiento la organización de las actividades para la normalización del euskera requiere una planificación cada vez mayor.

Esa complejidad y variedad, sin embargo, requieren unos procedimientos de trabajo firmes y transparentes, tanto para una correcta organización como para facilitar la participación de la iniciativa popular.

Así pues, carecemos de un procedimiento y una metodología adecuada, es decir, de un reglamento de organización y funcionamiento de una Mesa Sectorial que nos ayude a canalizar los intereses, las capacidades y las ideas de todas las personas que participan en la organización de las iniciativas a favor del euskera. El presente reglamento tiene como objetivo cubrir esa carencia o necesidad.

1. Objeto.

Nuestro objetivo es el trabajo conjunto en diversas áreas con los agentes sociales de nuestra localidad. Sin embargo, el principal objetivo de la mesa es constituir una Mesa Sectorial para fomentar la normalización del euskera.

Teniendo en cuenta el compromiso adquirido por parte de la Mesa Sectorial de Euskera para fomentar el uso del euskera, las mencionadas actividades estarán encaminadas a la consecución de su normalización. Para ello, en todos los actos se estará a lo dispuesto en la Ordenanza municipal sobre el euskera y en el resto de normas vigentes. Entre otros, en el ámbito público, merecerán especial atención:

— Propaganda, observaciones y publicidad.

— En cada actividad, los mensajes anunciados mediante megafonía, así como la música o las canciones, deberán cumplir el mismo requisito.

Asimismo, nuestro objetivo es establecer las bases que han de regir el procedimiento de los presupuestos, subvenciones y demás ayudas gestionadas por el Ayuntamiento y fomentar la iniciativa popular.

En cualquier caso, la naturaleza de las actividades deberá garantizar en todo momento la participación y la igualdad entre sexos. Por lo tanto, no se admitirá ningún colectivo o ninguna actividad que no respete lo anteriormente expuesto.

REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DE LA
MESA SECTORIAL DE EUSKERA*1. Lengua utilizada en la Mesa Sectorial de Euskera.*

— La lengua de funcionamiento de la Mesa Sectorial de Euskera será el euskera.

2. Mahai sektorialeko partaideak.

— Euskararen mahai sektorialaren lehendakaria, alkatea edo honek izendatutako zinegotzia izango da.

— Euskararen mahai sektorialeko koordinatzaile eta idazkaria, hizkuntz normalizatzailea izango da.

— Euskararen mahai sektorialaren lehendakari funtzioak delegatuak baditu ere, Alkatea.

— Udalan ordezkari bat duen alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat.

— Elkarte bakoitzeko ordezkari bat, beti ere aurrez, mahaiak berak jarritako epetan, hizkuntz normalizatzaileari partaide izatearen nahia azalduz gero.

— Herritar oro, beti ere aurrez mahaiak berak jarritako epetan hizkuntza normalizatzaileari partaide izatearen nahia azalduz gero.

— Edonola, gonbidatu moduan nahi duen orok Euskararen mahai sektorialera etortzeko aukera izango du.

3. Mahai sektorialaren maiztasun egutegia.

— Mahai sektorialaren maiztasuna hiru hilerokoa izango da gutxienez.

— Urte hasieran, urte osoko mahai sektorialaren bilera egutegia adostuko da.

— Bilera egunak eta ordua euskararen mahai sektorialak berak erabakiko ditu.

— Bileren iraupena gehienez ere 2 ordukoa izango da. (salbuespenak salbuespen).

4. Deialdia egiteko modua.

— Deialdiak lehendakariak egingo ditu. Halere, posible izango da mahai sektorialeko batzuk, partaideen %30(a)k, eskatuz gero, udala deialdia egitera behartzea bi asteren buruan.

— Deialdia eta dokumentazioa, partaideek adierazten duten helbidera bidaliko da e-postaz.

— Deialdiak prentsara ere igorriko dira.

5. Aholkuak jasotzeko modua.

— Bilera bakoitzeko erabakiak euskara teknikariak, hots, mahai sektorialeko idazkariak akta bidez jasoko ditu.

— Aldi berean, bilera hasi aurretik, aurreko batzarreko akta ontzat jotzeko eskaera egingo da. Ontzat jotzen bada, onartuko egingo da, bestela zuzenketak egiteko aukera emango da.

— Bilerero, bertaratutako guztiek, bilera hasi aurretik deialdiaren orria sinatuko dute.

6. Aholkuak emateko modua.

— Legeak dionaren arabera, Udal Mahai Sektorialen izaera informatiboa da. Halere, euskararen mahai sektorialean hartzen diren mahaia beraren erabakiak udalak berea egiteko konpromisoa hartzen du.

— Bileretan agertzen diren gaien inguruko erabakiak partaideen artean aho-batez hartuko dira. Hauek honela hartzeko modurik ez balego, bozkatu egingo dira eta bertan dauden partaideen artean gehiengo soilez onartuko dira.

7. Partaideen eskubide eta bete beharrak.

Euskararen mahai sektorialeko partaideek hainbat eskubide eta betebeharrak izango dituzte. Besteak beste, honakook:

2. Miembros de la Mesa Sectorial.

— El presidente de la Mesa Sectorial de Euskera, que será el alcalde o el concejal en quien delegue.

— Coordinador y secretario de la Mesa Sectorial de Euskera, que será el normalizador lingüístico.

— El alcalde, a pesar de tener delegadas las funciones de presidente de la Mesa Sectorial de Euskera.

— Un representante por cada partido político con representación municipal.

— Un representante por cada asociación, en el caso de comunicar al normalizador lingüístico su deseo de formar parte de la Mesa en los plazos establecidos previamente por la propia Mesa.

— Cualquier ciudadano, en el caso de comunicar al normalizador lingüístico su deseo de formar parte de la Mesa en los plazos establecidos previamente por la propia Mesa.

— Cualquier ciudadano, en calidad de invitado, podrá acudir a la Mesa Sectorial de Euskera.

3. Periodicidad de las sesiones de la Mesa Sectorial.

— La Mesa Sectorial se reunirá como mínimo cada tres meses.

— A primeros de año, se aprobará el calendario anual de sesiones.

— La fecha y la hora de las sesiones las establecerá la propia Mesa Sectorial.

— La duración de las sesiones será como máximo de 2 horas (salvo excepciones).

4. Convocatoria.

— Las convocatorias las realizará el presidente. Sin embargo, en el caso de que el 30% de los miembros así lo solicite, el Ayuntamiento deberá realizar la convocatoria en el plazo de dos semanas.

— La convocatoria y la documentación se remitirá por correo electrónico a la dirección señalada por los miembros.

— Las convocatorias se publicarán, asimismo, en la prensa.

5. Constancia de resoluciones.

— El técnico de euskera, es decir el secretario de la Mesa Sectorial extenderá la correspondiente acta con las resoluciones adoptadas en cada sesión.

— Asimismo, al comienzo de la sesión, se solicitará la aprobación del acta de la sesión anterior. En el caso de no aprobarse, se podrán realizar las modificaciones pertinentes.

— Al comienzo de cada sesión, los asistentes deberán firmar la hoja de convocatoria.

6. Adopción de resoluciones.

— Según lo dispuesto en la Ley, la naturaleza de las Mesas Sectoriales Municipales es informativa. Sin embargo, el Ayuntamiento se compromete a asumir los acuerdos propios adoptados en la Mesa Sectorial de Euskera.

— Los acuerdos sobre el orden del día serán adoptados por unanimidad de los miembros de la Mesa Sectorial. De no alcanzarse la misma se adoptarán por mayoría simple de los votos de sus miembros presentes.

7. Derechos y obligaciones de los miembros.

Los miembros de la Mesa Sectorial de Euskera tienen, entre otros, los siguientes derechos y obligaciones:

a) Eskubideak:

I. Mahai Sektorialaren erabakietan parte hartzeko ahalmena.

II. Aurrekontuen gainean proposamenak egiteko ahalmena izango dute partaideek.

III. Elkarrekin antolatutako ekintza denetan - Euskararen mahai sektorialaren adostasunez- udal azpiegitura elkarrekin esku jartzea onartuko da.

IV. Urtean zehar udalak egiten duen eskaintzaren inguruan, hizkuntzari dagokion gaien inguruan, euskararen mahai sektorialak bere iritzia eta proposamena azaltzeko eskubidea izango du.

b) Betebeharrak:

I. Antolatzen diren ekitaldi denetarako, eskaria udal erregistroan edota euskararen mahai sektorialean egingo da. Betera, erregistratzeko beharrezkoak diren datu guztiak ekarri.

II. Eskaerak garaiz egin behar dira. Euskararen mahai sektorialak berak urtero markatuko ditu egutegiak.

8. *Diru laguntzak banatzeko modua.*

Euskararen Mahai Sektorialak noizbait dirulaguntza proposamenak egingo balitu, ondorengo arautegiak hartuko lituzke kontuan: Udal Batzarrak, 2006ko abenduaren 7an egindako ohizko bilkuran, behin betikoz onartu zuen dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko Ordenantza Arautzailea eta azaroaren 17ko 38/2003 Legean, Dirulaguntzei buruzko Orokorrean eta indarrean dagoena.

9. *Talde eragilea.*

I. Euskararen mahai sektorialaren funtzionamendua dinamizatzen lagundu dezakeen Talde Eragilea sortzeko ahalmena izango du.

II. Talde Eragileko partaideak euskararen mahai sektorialak izendatuko ditu.

Lezo, 2011ko maiatzaren 11.—Alkatea.

(1061)

(6811)

a) Derechos:

I. Capacidad para participar en las resoluciones de la propia Mesa Sectorial.

II. Los miembros de la Mesa Sectorial de Euskera tendrán capacidad para presentar sus propuestas sobre los presupuestos.

III. En todas las actividades organizadas por las asociaciones con la conformidad de la Mesa Sectorial de Euskera, se autorizará el uso de las infraestructuras municipales por parte de las asociaciones.

IV. En cuanto a la oferta lingüística realizada por el Ayuntamiento durante el año, la Mesa Sectorial de Euskera tendrá derecho a dar su opinión y a presentar las propuestas que considere oportunas.

b) Obligaciones:

I. La solicitud para todos los eventos que se organicen deberá realizarse en el registro municipal o en Mesa Sectorial de Euskera. En cualquier caso, se deberán facilitar todos los datos necesarios para su registro.

II. Las solicitudes deben realizarse en el plazo previsto. La propia Mesa Sectorial de Euskera establecerá los calendarios anuales.

8. *Criterios para el reparto de subvenciones.*

Si se diese el caso en el que la Mesa Sectorial del Euskara propusiese subvenciones, se tendrían en cuenta las siguientes disposiciones normativas: Ordenanza Reguladora de concesión y gestión de subvenciones aprobado definitivamente por el Pleno del Ayuntamiento celebrada en sesión ordinaria el 7 de diciembre de 2006 y la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás normativa vigente.

9. *Equipo dinamizador.*

I. La Mesa Sectorial de Euskera tendrá capacidad para la formación de un equipo que pueda ayudar a dinamizar el funcionamiento de la misma.

II. Los miembros del Equipo Dinamizador serán nombrados por los miembros de la Mesa Sectorial de Euskera.

Lezo, a 11 de mayo de 2011.—El Alcalde.

(1061)

(6811)